

ZEU ERE HILKO ZARA?

Heriotzari buruzko GALDERAK

Haurrak gu konturatu baino askoz lehenago jabetzen dira heriotzaz. Kanean edo mendian animalia txikiak hilda ikusten dituzte, telebistan edo bideojokoetan heriotzazko pasarteak ikusten dituzte, entzuten dituzten ipuinetako pertsonaia batzuk ere hil egiten dira, beren jokoetan batzuetan heriotza agertzen dute. Heriotza eguneroko bizitzako atal bat da eta, neurri batean, haurrak horretaz jabetzen dira.

Hurrekin heriotzaz hitz egitean, jakin dezakezue zer dakiten eta zer ez, oker dauden ala ez, beldurturik ala kezkatuak dauden. Horrek informazioa, kontsolamendua eta ulermena ematen lagunduko digu.

Ez saihestu, beraz, gai hau, zuon seme-alabak horri buruz galdetzen badizue. Lasaitasunez hitz egin. Eguneroko bizitzako adibideak bilatu, hobeto uler dezaten. Lasaitu haurra gaia kezkatuta eta urduri aurkezten badu; bilatu larritasun horren arrazoia.

Heriotzaren gaia dala-ta, honelako galderekin harri zaitzakete:

- Zergatik hiltzen gara?
- Zer da heriotza?
- Zer gertatzen zaie hiltzen direnei?
- Non daude orain?
- Eta neu ere hil egingo naiz?
- Eta zeuk ere hil egingo zarete?

Erantzunak emateko iradokizunak

Nola erantzun haurrari heriotzari buruz galdetzen digunean? Bizi garelako hiltzen gara, bizi den guztiak hil egin behar duela eta hiltzen den guztia bizi egin dela ulertarazten laguntzea da biderik egokienetakoa. Bizitza eta hiltzea elkarrekin doazen errealitateak dira, errealitate bereiztezina dira. Haurrek ondo uler dezakete hau. Hiru urte dituztetik, gure hitzek bizitza-heriotza erlazio hori ulertzen lagun diezaiekete. Heriotza bizitzaren barruan dagoen misterioa da eta, misterio guztiak bezala, gure hitzekin gure isiltasunarekin baino hobeto ulertuko dute.

Haurrak heriotza zer den uler dezan, mesedegarria izaten da eguneroko bizitzan izandian heriotza zenbat aldiz agertzen den gogoratzea: landareen bizitzan eta bereziki loreengan, txoriak edo arrainak bezalako etxeko animalia txikien heriotzan...



Bost urtetik beherako haurrentzat, heriotza aldi baterako zerbait da, itzulgarria, beren esperientziako zati diren beste gertaera batzuen antzekoa. Beren pentsaeran, hil den pertsonak bizirik dirau, eta unerren batean esnatu egingo da bere lehengo bizitzarekin jarraitzeko.

Arreta jarri behar dugu heriotzaz hitz egiterakoan darabiltzagun esamoldeekin, hurrengan nahasketarik ez sortzeko, adin hauetan dena hitzez hitz hartzen dute eta. Hurbileko norbaiten heriotzaren aurrean, zuzenean *hil egin dela* esatea da egokiena eta ez beste itzulginguru batzuk erabiltzea: "joan egin da" (nahi badu itzul daitekeela uste du haurrak), "galdu egin dugu" ("eta neu ere galtzen banaiz eta etxera bueltatzen ez badakit?", pentsa dezake), "lo geratu da betirako" (beldurra izan dezake, lokartu eta ezingo dela-ta esnatu), "bidaian joan da" (badaki, denboraren buruan, bidaiatik itzuli egiten dela), "Jainkoak eraman du" (beldurra ematen duen Jainkoaren irudia sortzen da)... Adierazpen hauek eta beste batzuek larritasuna eta nahasketa eragin dezakete hurrengan.

Heriotza nola gertatu zen azaldu behar badugu, hitz gutxi erabili behar dugu. Esate baterako: "oso gaixo egon da eta zeukan gaixotasunak heriotza eragin dio". Garrantzitsua da "*oso gaixo*" hori nabarmentzea, haurrak izan ez dezan edozein gaixotasunen aurrean hiltzeko beldurrik. Heriotza istripu baten eraginez izan bada, "*zauri larriak*" zituela eta, nahiz eta sendagile eta erizainek eginahalak egin, ezin izan zituztela sendatu esan diezaiekegu.



Pertsona hurbil eta maitea galdu ondoren, haurrek zirrara sakonak bizi dituzte, nahiz eta beti berdin azaldu ez. Familiak beren sentimenduen adierazpenak (amorrua, beldurra, tristura...) onartzen dituela antzematen badute, errazago adieraziko dituzte eta, horrela, egokiago bizi izango dute banantzea. Kontsolatu nahian, "ez negarrik egin", "ez triste egon", "ausarta izan behar duzu", "ez dago ondo haserretzea", "zentzuz jokatu eta pertsona nagusi bezala portatu"... esaten badiegu, hitz hauek beren emozioen adierazpen askea moz dezakete eta haurrak ezingo du bere barrua hustu.

Batzuetan, hurkoa eta maitea dugun norbaiten heriotzaren aurrean, haurrek beren fantasian beraiek pentsatu, esan edo egin zuten zerbait izan dela heriotzaren arrazoia pentsa dezakete. Bere samina, horrela, erruduntasunezko sentimendu bihurtzen da. Haurrak, era batera edo bestera, pentsamendu hauek adierazten baditu, heriotza ez dela inola ere bere errua izan esan beharko diogu patxadaz eta argitasunez.

Haurrek gai honi buruz egin ditzaketen galderei dagokienez:

- Haurrek azalpen egiazko, zintzo eta sinpleak behar dituztela kontuan hartu. Ez da xehetasun larregi eman behar.
- Ez itxaron heriotza hurbilean izan arte, gaiari buruz hitz egiteko.
- Haurrarentzat hurkoak ez diren pertsonak hiltzen direnean edo izadiko esperientzietan (zuhaitzak udazkenean...) edo abereen heriotzan, hitz egin daiteke gai honen inguruan.
- Hurbileko norbaiten heriotza gertatzen denean, berria ahalik eta bizkorren ematea da zuzena. Ez da komeni denbora pasatzen uztea, haurrak laster antzematen duelako zerbait arraroa gertatzen ari dela eta berari ezkututzen ari zaizkiola.
- Zuon erantzunean, ez larritasunik transmititu. Tristura antzeman dezake zuongan, baina beraien aurrean ez egin zeinu lazgarririk edo kontrolik gabeko zeinurik.

Fededun ikuskeratik

- Aita eta ama, zorion eta biziz beterik ikusten gaituztenean, pozten diren bezala, Jainko gure Aitak ere biziz beterik ikusi nahi gaitu. Gure heriotzaren ostean, Jainkoaren ondoan bizitza zorionsua dagoela agindu digu Jesusek. Gure Aita Jainkoak biziz beterik nahi gaitu Bere ondoan.
- Jainkoak bizia ematen digu, bizitzan zehar lagun egiten digu eta heriotzaren ostean biziz betetzen gaitu.
- Udazkena heltzen denean, izadi osoa prestatzen da hiltzeko, baina udaberria iritsi eta berriz ere biziz betetzen da. Gure bizitzari antzerako zerbait gertatzen zaio, egun batean heriotza heltzen zaigu, baina Jainkoak udaberri berezia dauka guretzat prestatuta. Betirako bizi gara berriz ere bere ondoan. Jainkoak bildu eta inoiz bukatzen ez den bere biziz betetzen gaitu.



- Hurko baten heriotzak samina eta pena eragiten dizkigu. Gaizki pasatzen dugu, ezin dugulako berarekin orain arte bezala gozatu, baina fededunok Jainkoaren ondora, bizi berrira goazeneko itxaropenez bizi gara.
- Heriotzaren ostean, bizira berpizten gara, Jainkoaren ondoan bizitzeko. Ez gara berraragizatzen edo ez gara beste pertsona edo abere bat bihurtzen, bizi honetan bizitzen eta sufritzen jarraitzeko; Jainkoak onartu eta besarkatu egiten gaitu, zorionez beteta Berarekin betiko bizitzeko.
- Jesus gure antzera bizi izan zen, bene-benetan maite izan gintuen denok, denok hilko garen bezala hil zen, baina Jainkoak berpiztu egin zuen, biziz bete zuen. Horrexek frogatzen du gure heriotzaren ostean Jainkoa dagoela gu biziz betetzeko.
- Jesusek diosku: "ez izan kezkarik: sinetsi Jainkoarengan eta sinetsi niregan ere. Nire Aitarenean toki asko dago; horrela izan ez balitz, esango nizuekeen. Orain zuentzat toki prestatzera noa. Joan eta toki prestatu ondoren, berriro etorri eta neurekin eramango zaituztet, ni nagoen lekuan zuek ere egon zaitetzten" (Jn 14, 1-4).

